

## Eho-zirien Topaketa

164 lagun aritu  
ziren lanean  
Karrapean  
herenegun ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2006-06-06 ▶ IV. urtea ▶ 904. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Aste Berdearen baitan, Agenda 21 zer den ikasten ari dira txikienak

**ZIZURKIL** ▶ 'Tokiko Agenda 21ean Murgilduz' erakusketa izango da, herriko bi eskola publikoetan

**INGURUMEN EGUNA** ▶ Plaiaundi parkeko Txingudi Ekoetxera egin zuten irteera atzo adinekoek ▶ 3



Pedro Mari Otaño eskolako gaztetxoek Agenda 21 zertan datzan ikasten ari dira aste honetan. I. GARCIA

**TOLOSA** ▶

## Adinekoen Astea, lurreamendin

Ekitaldi mordoan antolatu dituzte igandera arte, egoiliarrei zuzenduta; larunbatean, 90 urte bete dutenei omenaldia ▶ 2



MADDI SOROA

## Jaiei agur, giro ederrean

**IBARRA** ▶ Eguraldi onak lagundurik, Izaskun auzoko jaiei amaiera eman zieten atzo umeei zuzenduriko egunarekin ▶ 6

**ALEGIA** ▶

## Lurraldekako Lehen Mailara igotzeko aukera du Intxurrek

Azpeitiko Ikasberriren aurka irabazita beste emaitzen zain dago taldea ▶ 4



**ceinpro**  
Diseinuaneta, kreazioahalmenean  
oinarritutako heziketa

■ DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA

ARTE GRAFIKOETAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 Ikasturte / 2000 ordu  
SARRERA · UBI · LH II · IEE II · edo HSAOL BATXILERGOA gainditua

■ ARTE GRAFIKOEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA

ARTE GRAFIKOETAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 Ikasturte / 2000 ordu  
SARRERA · 2. BBB · LH I · IEE I · edo DBH gainditua



Heriz Pasealekua, 95  
20008 Donostia  
Gipuzkoa  
Tel: 848 910 873  
Fax: 843 910 875  
[www.ceinpro.es](http://www.ceinpro.es)

## GIZARTEA ▶

**Tolosa Kup-eko bigarren bilera izango da, bihar**

Bihar, 19:30etik aurrera, Tolosa Kup-eko bigarren bilera burutuko dute, Kultur Etxean. Bertan, egutegia finkatzen hasiko dira eta, halaber, ardurak banatuko dituzte. Beraz, antolatzaileek dei egin diete Tolosa kup-en parte hartu nahi dutenei. Interesatuak izena eman behar dute, gazteria@tolosakoudala.net helbide elektronikoa edota 943 67 03 83 telefono zenbakian.

## FUTBOLA ▶

**Deialdia 1993ean jaiotakoentzat, Tolosan jolasteko**

Tolosa klubak deialdi berezi egin nahi du, 1993. urtean jaiotako gazteentzat. Hala, Tolosako futbol talde honek jolastu nahi dutenentzat probak antolatu dituzte, gaur eta etzi, osteguna, 17:30etik aurrera, Usabalen. Bertaratuak entrenamendurako arroparekin joan behar dute jakinarazi dute arduradunek.

## GIZARTEA ▶

**Tolargik argi mozketak egingo ditu egunotan**

Bere bezeroei zerbitzu hobea emateko helburuz, Tolargik0 instalazioetan hobekuntza eta mantenimendu lanak egingen ari dela eta hurrengo egunotan argindar mozketak egingo ditu Tolosan. Hala, bihar, 08:15etik 12:15era Zumalakarregi kaleko 1, 3, 4, 5 eta 6 zenbakietan; 14:15etik 16:30era Nafarroa Etorbideko 9, 11 zenbakietan eta Samaniego kaleko 3 zenbakian burutuko dituzte aipatu mozketak.

## GIZARTEA ▶



Kafetegian jokuak egin zituzten adinekoek; ondoren, saria jaso zutenik ere izan ziren. N. LATABURU

# Ekin diote Adinekoen Asteari lurreamendin, ekitaldi mordoarekin

Igandera bitarte egunero-egunero izango da zer gozatua egoitzan; larunbatean, 90 urtekoei omenaldia egingo diete

NOELIA LATABURU

Iurreamendi egoitzako egoiliarrek eta langileek Adinekoen Asteari ekin zioten atzokoan, eta igandera bitarte, egunero izango dute zer egina eta zer gozatua bertan bizi direnek, euren bizilekutik atera behar izan gabe, gainera. Izan ere, askotariko ekitaldiak antolatu dituzte bertako arduradunek aste osorako, beti ere, «adinekoen gozamenerako eta aste batez protagonistak izan daitezten».

Otordu bereziak, ospakizunak, jokoak, abesbatzen emaldiak, meza bereziak... askotariko jarduerak dituzte auke-

ran adinekoek, hil honen 11ra bitarte, igandearekin. Besteen artean, omenaldia egingo diete aurtengoa 90 urte bete dituzten edo beteko dituzten egoiliarrei Iurreamendiko arduradunek eta gainerako adinekoek. Ekitaldi hau da guztietan bereziarena, eta larunbatean egingo dute, 18:30etik aurrera, egoitzan bertan, Euskal Herria plazako gizarte zentroan bazkaldu ostean.

**Atzokoa, lehen eguna**

Atzo, esate baterako, eukaristiak ireki zuten Adinekoen Astea. Eta jai hoberenen antzera, txupinazoa jaurti zuten, kolore-

etako puzgarriak eta guzti. Jarrera jokoan egiteko aukera izan zuten, loteriarekin jardun zutelako egoiliarrek Iurreamendiko kafetegian. Goizekoak amaituta, ordea, egunak bazuen oraindik ezusteko gehiago; hala, eta bazkari lezea eta siestatxoak egin ostean, kafetegian joku ezberdinetan aritu ziren, sari banaketa ere izan zelarrik.

Iaz bezalaxe, antolatzaileen helburua «egoiliarrek ongi sentitzea eta ondo pasatzea» da. Eta lortu ere lortzen dute, etxekoekin, kanpokoekin, lagunartean eta bistatzen dituzten senideekin batera, «berezia» sentitzen dira adinekoak.

## EGITARAUA ▶

Adinekoen Astea aurten ere ekitaldiz blai dator lurreamendiko egoitzara. Atzo ekin bazioten ere, egunegun, igandera bitarte, ez dute aspertzeko betarik izango gure adinekoek.

**GAUR**

**10:30.** Meza.  
**11:00.** Egoiliar, familia eta lagunentzat egoitzako 2005eko memoriaren aurkezpena.  
**13:00.** Bazkaria zuzendaritzako batzorde kideekin.  
**17:00.** Donostiako Alaitu abesbatza kafetegian.

**BIHAR**

**10:00.** Unitate psikogeriatrikako erresidententzat meza.  
**11:00.** Ertzaintzako musika bandaren emanaldia kaperan.  
**16:30.** Iurreamendiko koroaren emanaldia kafetegian.  
**17:30.** Tolosako Musiko Eskolako ikasleen emanaldia kafetegian.

**ETZI, OSTEGUNA**

**10:30.** Meza.  
**11:00.** Galderen lehiaketa eta ondoren, sari banaketa.  
**17:00.** Txokolatada lorategian.

**OSTIRALA, EKAINAK 9**

**10:30.** Meza.  
**11:00.** Tonbola.  
**16:00.** Bingoa kafetegian.

**LARUNBATA, EKAINAK 10**

**10:00.** Irteera azokara.  
**14:00.** Bazkaria Euskal Herria plazako gizarte zentroan.  
**18:30.** Meza. Ondoren, 90 urte bete dituzten egoiliarrei omenaldia egingo diete.

**IGANDEA, EKAINAK 11**

**13:00.** Astea amaitzeko, bazkari berezia antolatu dute egoitzan.

## hilberriak ▶

**Juan Maria Garate Imaz**

HERENEGUN hil zen, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —



Bere emaztea: Rita Ara; seme-alabak: Asun, Lourdes (A. Montes en alarguna), Isabel eta Andres Cortes, Carmen eta Jose Mari Inurrategi, Ramon eta Gema Begiristain; bilobak: Leire eta Iban, Miriam eta Eneko, Amaia, Ainhora, Maider, Eider eta Ion; anai-arrebak: Pepi eta Rafa Moraza; ezkon anai-arrebak: Paquita Ara eta Carmelo Elzalde, Carmen Artola (I. Araren alarguna), Camino Ara eta Jesus Mari Gonzalez; ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde etotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, TOLOSAKO SANTA MARIA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Korreo, 4 (Tolosa)  
oharra ▶ gorpua Tolosako beltategian dago gaurko 10:00ak arte

TOLOSAN, 2006ko ekainaren 6an

**Maria Aizpurua Iraola**

(Iñaki Egiguren Aizpurua langilearen ama)

Gure doluminak  
Belauntzako Udaleko  
alkate, zinegotzi eta langileek.

Belauntzako Udala  
BELAUNTZAN, 2006eko ekainaren 6an

ANOETA ▶ GIZARTEA

## Udaleku irekiak antolatu ditu Udalak uztaileko

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak udaleku irekiak antolatu ditu. Jokuak, kirolak, eskulanak, irteerak... egingo ditute bertan parte hartzen dutenek. Lehen Hezkuntzako 1. eta 6. maila bitartekoek hartu dezakete parte eta gehienez 30 ume onartuko dituzte, izena emateko ordeneren arabera.

Udalekuak uztailearen 3tik 14ra, astelehene ostiralerara, 10:00etatik 13:00etara izango dira. Ekintzak ikastolan egin-

go badira ere, bi egunetan egun osoko irteerak egingo dituzte. Guztira, prezioa 50 eurokoa izango da eta matrikula kontu korrontetik kobratuko zaie partaideei. Izen-ematea udaletxean egin behar dute hil honen 9ra arte.

Bestalde, Udalak begiraleak behar ditu udalekuetarako. 18 urtetik gora izan behar dute eta kontuan hartuko da anoetarra izatea, begirale titulua izatea eta aisialdian eskarmentua izatea. Izen-ematea, udaletxean, hilaren 9a arte.

VILLABONA ▶ MENDIA

## Izaba-Burgi mendi ibilaldia, Aizkardirekin



Santa Barbarako gainetik igaroko dira mendizaleak. HITZA

ERREDAKZIOA

Villabonako Aizkardi Mendi elkarateak Izaba-Burgi ibilaldia antolatu du igande honetarako. Bi ibilbide izango dira aukeran. Biak, baina, leku berdinetik aterako dira, Izabatik. Idoiako baselizarra igoko dira eta handik GR-11 jarraituko dute Santa Barbara mendileroraino. Kakueta (1.583 metro) eta Santa Barbara (1.482 metro) gainak pasako dituzte mendizaleak.

Hortik behera, Lezerena lepora jaitsiko dira. Hemen, nahi dutenak, Bidankozera joango dira. Han autobusa zain izango dute Burgira eramateko. 17 kilometroko ibilbidea egingo aukeran. Biak, baina, leku berdinetik aterako dira, Izabatik. Idoiako baselizarra igoko dira eta handik GR-11 jarraituko dute Santa Barbara mendileroraino. Kakueta (1.583 metro) eta Santa Barbara (1.482 metro) gainak pasako dituzte mendizaleak.

ZIZURKIL ▶ ASTE BERDEA

# Lurraren etorkizuneko sendagileak

Agenda 21 zertan datzan erakusten dihardute Zizurkilgo haurrei; adinekoek Plaiaundira egin zuten bisita atzo

IMANOL GARCIA

**N**oraino iritsiko lirateke mundu guztiko autoak bata bestearen atzean ilaran jarrita?». Begiraleak egindako galderari ez ziren ausartu erantzuten ikasleak. «Largiraino», bota zuten azkenean begiraleak berak.

Tokiko Agenda 21ean Murgilduz erakusketa dago egunotan Pedro Mari Otaño eskolan, Zizurkilgo Aste Berdearen baitan. Etzi eta ostiralean San Millan eskolan izango da. Haurrei Agenda 21 zer den eta egunerokotasunean zer egin dezaketen gure planeta bizirik mantentzen laguntzeko erakusten zieten erakusketan. «Lurra gaitxo dago», zioen begiraleak, «eta zuek izan behar duzue sendagileak. Denon artean alaitu behar dugu triste dagoen Lurra». Gurasoek ere erakusketa ikusteko aukera izango dute gaur arratsaldean.

Ingurumenaren Eguna zen atzo eta haurrek ez ezik, adinekoek ere izan zuten ekitaldien parte hartzeko aukera. Haurk Plaiaundiko parkean kokatuta dagoen Txingudi Ekoetxera egin zuten txangoa. Bertan, Txingudiko badiaren maketa azaldu zitzaizen, Plaiaundi kokatu eta azalpen labor bat eman zitzaizen sarrera moduan. Ondoren, parkean zeuden hegaztiak ikusi ahal izan zituzten bi kamaren bitartez eta ikusentzunezko batetaz ere gozatzeko aukera izan zuten. Bukatzeko, langile batek lagunduta oinez buelta bat eman zuten ingurua ezagutzeko.



Haurrek jolasteko aukera ere izan zuten erakusketan zehar. I. GARCIA



34 lagun bildu ziren Plaiaundira egindako bisitan. HITZA



## TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrak, 2006ko maiatzaren 15ean, Batxilergo Zaldibia kaleak Gernikako Arbolaren Lorategiak eta Gipuzkoa Plazak osatzen duten gunea urbanizatzeko obrak egiteko Klausula Administrazioen agiria onartu zuen.

1.- **Helburua**. - Batxilergo Zaldibia kaleak Gernikako Arbolaren Lorategiak eta Gipuzkoa Plazak osatzen duten gunea urbanizatzea

2.- **Lizitazioaren zenbatekoa**. - 286.365,97 € (BEZa barne)

3.- **Lanak egiteko epea**. - 4. hilabete

4.- **Espedienteak ikusteko**. - Copitec (Gudari kalea 8, beheak); telefonoa: 943 65 40 28  
- Kopibat (Lizardi plaza 2); telefonoa: 943 65 51 66

5.- **Behin-behineko fidantza**. - 5.743,88 €.

6.- **Behin betiko fidantza**. - adjudikazio zenbatekoaren %4.

7.- **Enpresa-sailkapena**: G TALDEA 6 AZHTALDEA d KATEGORIA

8.- **Eskaintzak egiteko tokia eta epea**. - Tolosako Udaletxeko Sarrera Erregistroan, plaza Zaharra, 6-B-n, 2006ko ekainaren 26a, eguerdiko ordubata (13:00) arte.

Tolosan, 2006ko maiatzaren 31an. ALKATEA

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpainan

- ▶ egunero 8 orrialdeko kalitateko egunkaria, euskaraz
- ▶ uneoro informazioa eskura [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

KONTU KORRONTE bidez ordainduaz  
EROSOAGOA eta 2 ZATITAN  
ORDAINTZEKO AUKERA

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□



txartel berriarekin abantailak!  
beherapenak agurretan, eskeletan  
eta iragarki laburretan  
besteak beste



egunean 0,18 zentimoren truke etxean

ALEGIA > FUTBOLA

# Intxurrek lehenengo mailara igotzeko pausoa eman du

## Lurraldeko 1. mailan egoteko aukerak dituzte, baina ez dago euren esku



Intxurre futbol taldeak gogor entrenatzen du astero-astero, Alegiako futbol zelaietan. A. URSUA

egin dituzte, emaitzek hain alde egin batuta. Lurraldeko 2. Mailan dauden Intxurre taldekoek Alegiako futbol zelaietan jokatu zuten joan-etorriko lehen neurketa, Apenitiko ikasberri taldearen aurka. Horretan lortutako emaitza 3-1ekoan izan zen, etxe-koen alde. Gibelalde, Etxeberria eta Arzena jokalarien golei esker.

Pasa den asteburuan, aldiz, Apenitiko jokatu zuten itzulitza, eta 2-1 galdia zuten, futbol okaskarra erakutsiz. Hala eta guztiz ere, emaitza orokorra Intxurren aldekoa da. Hortaz, lurraldeko 1. Mailara igotzeko pauso egokia eman dute mutlek, baina lepora ez dago hain esku, aurrerantz beste mailatan jokatzekoak diren partidetan erabakiko baita. Intxurrek hurrengo denboraldian zain mailatan jokatu duen, 3. mailako lau taldek jokatu behar dute lehenik, beharago dauden maila guztietan eraginez.

Horrez gain, beste otzopo bat dute, izan ere egun Preferente Mailan 20 talde dauden arren hurrengo denboraldian 18 egongo dira, lurraldekoen aukerak murriztuz.

PILOTA >

# HITZA Pilota Txapelketako finalerdian, eskualdekoak

N. URBIZU

HITZA Pilota Txapelketa bere finalerdietara heldu da. Infantilen Mailan neurketak Aduan jokatuko dituzte, ostiralean. 19:00etarako aurrera eta haseak izango dira bihotzak: Urbieta-Zinkunegi (Alkizakoak), Urutia-Zubiarraren aurka; eta, Taberna-Ugaldé, Leizola Jaunaren-Olanoren aurka.

Aleibin artean, bertiz, egun beran, Albizturten, 19:00etan Uranganin-Jaka amezketarek. Urtaio-Apaztegia izango dituzte aurrerion Ondoren, Agirre-Erostar-be Erdotza-Urtzu arko dira. Alegian, 17:00etan hasiko dira benjaminen norgehiagokak. larunbatean, Almandoz-Azpizo. Ametzetako Sagastume-Ahurenen aurka arko dira, eta Mitxelena-Azpizoz, Telletxea-Mitxelenauren aurka.

Gaur, Beitarbarren

Gaur, Tolosako Beitarbar pilotalekuan, Ropon-Legarreta eta Garralda-Beroiz jubentak 19:30ean arko dira aurrerantz. Segidan, Iñesta-Soroa, Hurrio-Telletea eta etorkizuneko Uriarete-Iza, Oño-Ototorrenaren aurka.

KOBRAKETA KANPAINA >

# Kontu korronte bidezko kobraketa bi epetan, aukeran

## Erreztasunak ematen ditu Hitzak harpidedunek bere kuota ordaintzeko

ERREDAKZIOA

Aurrerago kobraketa kanpaina burutzen ari da Tolosako eta LEITZALDEKO HITZA. Gogoratu harpidedunek, hau da, urteroko kuota ordaintzen dutenak, jasoko dutela etxean egunkaria. Irakurle izaten jarraitu nahi dutenek, bertiz, leku jakin batzuetan jasoko dute egunkaria. Aldaketak irailaren ondoren izango dira. Ordaintzeko moduari dagukionez—erosoena bai harpidedunarentzat bai Hirzarentzat ere—, kontu korronte bidez egitea da. Aurrerago, gainera, ordaintzea bi epetan egiteko aukera izango da: hil honetan kuotaren erdia eta abenduan beste erdia.

Beste moduak ordaintzea egiteko transferentzia, edo egunkariaren egoitzara joatea dira. Bi kasu hauetarako komeni da harpidedunen helduko zaien fakturaren zain egotea, bertan azaltzen baita, esaterako, transferentzia egiteko behar den kontu korrontea.

Hitza harpidedunek egunkaria etxean jasotzea gain beste abantaila batzuk izango dituzte, zerbitzu oso eskaintu nahi baitzaien. Horrela, harpidedunak txar tel berria jasoko da eta abantailak izango ditu. Esaterako, beharpenak izango ditu zoriari agur, esleia eta iragarki laburretan. Horrez gain, hainbat zozketetan parte hartzeko aukera izango du.

Sari zoragarriak

Hain zuzen, harpidedun guztien artean bi sari zozketatu dituzte HITZAK hilaren bukaeran. Alde batietik, Tolosako Lautrek bidala agentziak eskainta dion bi pertsonetazko astebeterako Tenerifera bidala, eta, bestetik, Tolosako Zumeta jate-txan bi laguntzarako sari bakiak.

Zozketan parte hartzeko, Hirzan azaltzen den kupoiari harpidedunen datuak bete behar dira eta Hirzaren Tolosako edo Leitzako egoitzara eraman edo bidali behar da. Harpidedun bakoitzeko kupoi bakarra bidali behar da. Ohi bezala, irabazlearen izenak egunkarian argitaratuko dira.

ALBIZTUR >

# Ipuin kontalaria bihar, Kultur Astearren baitan

Bihar Joseba Ramirez Ipuin kontalaria egongo da Albizturten, 16:30ean 3 eta 6 urte bitartekoekin zuzenduko saio, eta ordu erdi geroago, 12 urte artekoekin. Ostiralean, bertu ikasleekin saioa egongo izango da, 12:00etan. Baita partidak izango dira, eskualdeko pilotari on asokoen.

ANOETA >

# 'Zaintzen duenaren zaintza' hitzaldia, bihar

Kutxak antolatutako hitzaldien baitan, bihar hitzordu berria izango dute Anoretako Alkartasuna. Bitzikotan, 18:30etik aurrera Xabier Arrazolak *Zaintzen duen pertsonaren zaintza* hitzaldia eskainiko du. Dizi, bertiz, Xalagorria egongo dute bidala Alkartasunekoek: 07:30ean abiatuko dira pilotatik.

IBARRA >

# Egoera politikoa hizpide, biharko batzarrean

Bihar, Ibarra Subeji Elkartearen batzarra egongo dutea jakinarazi dute. Batzar honetan egongo egoera politikoa izango dute hizpide. 19:30etik aurrera bilduko dira, elkartearen bertan. Aipatu bilera lekia izango da eta, hortaz, antolatzaileek herriartar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzerako.

IKAZTEGIETA >

# Festetako hirugarren bilera bihar izango da

Bihar, 21:00etan, Ikaztegieta festetako 3. bilera egongo dute liburategian. Aurrerantzean, ahoz emango dute hurrengo bilera deialdiaren berri. Joaten direnen artean antolatuko dituzte festak, eta hain ideiak hartuko dira kontuan. Ezer proposatu nahi izanez gero, gonbitea egonki dago.

**NEREA URBIZU**

Alegiako Lurraldeko Intxurre futbol taldeak azken bi asteburuetan bi partida erabakior jokatu ditu. Hauen, maila igotzeko aukerak areagotu

**Joseba Tapia**

**Tolosako Udala**

**ERROZTEA**

Udareak, 2006ko maiatzaren 17n egon zuen jokatu bitartean, hainbat erabakia hartu du. Hainbat erabakia hartu du, hainbat erabakia hartu du, hainbat erabakia hartu du.

**ALIAA** Karlos Arguiñanoren Sukalderitza Akademia

- 3.000 ordu Graduko errealneko formakuntza zikloa - sukalderitza tekniko. Ciclo formativo de grado medio - técnico en cocina.
- 7.000 ordu Masterra Europako gastronomian. Master en gastronomía europea.
- 30 ordu Udoko sukalderitza eta gozogintza Masterra. Curso cocina y repostería de verano.

Urdaneta bidea, 5 20800 ZARAUZ  
tel.: 943 13 46 00 • www.aliaa.es

**hitza Harpidedunen txokoa**

**Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabea emango dizu**

- 1 Bidaia zoragari bat Tenerifera 2 laguntzaraz**
- 2 Lurrako otordu berezia Tolosako Zumeta jate-txan**

**Ez galdu aukerak! Egin zaituzte harpidedun ordaintzale!**

**PATITE MATEZKO:** Maitasun-Oñe, Hainaren 2 Seta argaztaren diren bako hainbat bat, zure daburien bete eta 100€ urteko hitza honetan. **Tolosako eta Leitzaldeko HITZA** - Hainaren 2 Seta - **TOLOSAN** Ekainaren 25an irabazlearen izena **HITZA ZORTE ON!** Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzalea izatea.

**TENERIFERA BIDAIA** 2 laguntzarazko astebeterako egonaldia

**OTORDU EDERRA** 2 laguntzarazko Tolosako Zumeta jate-txan

**beti zure datuak**

Harpidedunen kodea:.....  
 Batek:.....  
 Abonak:.....  
 Helbidea:.....  
 Herria:.....PK.....  
 Telefonoa:.....  
 Fakturak:.....

**MILAKA ARRAZOI DITU GUZTIK GAINERA KOEK EZ BEZALA EGITEKO.**

Er da lagunko, Guztiek egiten dute yoga edo aerobiko, eta zu zuki bati kolokoa izateko zain. Guztia errazen kulturaren garaian, kalesak metroz metro ibiltzen ari gara, zuntz optikoak 225.000 kilometro kable sartzeko. Er da lagunko.

Er ditugu guztiak beste guztiek bezala egiten, Baina, gaur egun, miloi bat pertsonen bano gehiagoren korporazio gara, Horregatik, lursan jarraituko dugu, guztiak gutxienez zik espero bezain ordo egiteko. Eusketat Zuretzat.

**Euskaltel** zuretzat

## IBARRA ▶ IZASKUNGO JAIK

# Giro onean agurtu dituzte aurtengo jaiak

Herri-kirol probetan Urnieta gailendu zen Izaskunen aurka; atzokoan, gaztetxoak izan ziren protagonista nagusiak

IÑIGO TERRADILLOS

Eguraldia onak lagundurik, giro ederrean, igaro dira aurtengo Izaskun auzoko jaiak. Aizkora errebantxa garrantzitsuarekin ekin zioten asteburuari, eta herenegun ere herri-kirol probek ez zuten hutsik egin; hala, Izaskun eta Urnieta aritu ziren nor baino nor koxkoletan, lasto altxaketan, korrika, gizon proban, segan eta frontzan, eta urnietarrak izan ziren garaile. Sokatiran, beriz, auzoko nagusiak izan ziren gehiago gazteen aurka. Txerri harrapaketa ere egin zuten; proba honetan, binaka aritu ziren, sokarekin hankak loturik zituztela, ea nor txerria azkarrago harrapatu. Eta azkenik auzoko 12 lagun korrika lehia-tu ziren, Joxe Mari Arregik eta Iñaki Sarasolak irabazi zutelarik. Trikitilarien doinuek alaitu zituzten probatik probarako tartearak, eta 130 lagun bildu zituen bazkarian ere aritu ziren bertsolariekin batera. Urtero egiten duten moduan, karretila ere zozketatu zuten, eta zenbaki sariduna 11 saileko 100 zenbakiduna izan zen —649 22 53 79 zenbakira hots egin behar-ko du txartela duenak—.

Atzokoa, umeen eguna izaki, Alurr dantza taldearen saioa eta bertsolariak izan ziren besteak beste. Azkenik, errome-riak eman zien amaiera jaiak.



Herenegun izandako herri-kirol proben une bat. MADDI SOROA



Mendiluze eta Lizaso bertsolariek saioa eskaini zuten atzo. I. T.

## IBARRA ▶

## Etiopiar buruz, ikus-entzunezkoa

IBARRAKO Kultura eta Gazteria Sailak, Kutxa Gizarte Ekintzaren laguntzaz, *Munduan zehar bidaiatuz* lemapean, bidaien inguruko astea antolatu du gaurtik ostirala bitarte. Gaurkoan, Asier Aranzabalen eta Mila Gallastegiren *Etiopian zehar oinez* ikus-entzunezkoa izango da ikusgai, 20:00etan Kultur Etxean.

## IBARRA ▶

## San Bartolome jaietako txartelak dagoeneko salgai

San Bartolome jaietako txartelak salgai daude Danon Txokoan, Txumitxan, Arkaitz-Azpin, Atarin, Sendi Ekintzan, Guraso elkartearen eta Zubiaurren. Aurtun zaharrei laguntzeko bideratuko dute bildutako dirua.

## IBARRA ▶

## Herri antzerkia prestatzeko bilera gaur, 20:00etan

Aurtun ere, sanbartolometan herri antzerkia egingo dute, eta Hauspoa elkartearen hasia da jada prestatzeko. Hala, herritar guztiak deitu dituzte antzezanari eta entsaioei buruz hitz egiteko, gaur, 20:00etan, Sendi Ekintzan.

## LIZARTZA ▶



Ina-ren omenaldiko une bat, herenegun, Lizartzan. MADDI SOROA

## Ekitaldi hunkigarriak 'Ina'-ren omenez

Ina Zeberio lizartzarraren heriotzaren VIII. urteurrenean haren omenezko ekitaldiak egin zituzten, bai Gernikan —han hil zuen tiroz Ertzaintzak—, bai eta bere jaioterrian ere. Larunbatean Gernikan eginiko ekitaldien ostean, igandean, Lizartzan mendimartxa egin zuten, eta ondoren bere omenezko monolitoaren aurrean egin zuten ekitaldia. Txalapartari, dantzari eta bertsolarien saioaren ostean, bazkarian bildu ziren herritarrek.

## iragarki laburrak ▶



San Francisco de Asís, 47. Bidea  
70004  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 90 37  
Fax: 943 65 09 44  
www.enia.com

**Abaltzoketa.** Oso tamaina politeko baserria salgai.

**Anoeta.** Marthan dagoen taberna-jatebidea alokairuan. Informazio pertsonala.

**Alegia.** Taberna alokairuan, informazio pertsonala.

**Alkiza.** Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. 4 solairu.

Bista oso onak.

**Amezketak.** Etxe atxikia salgai.

**Amezketak.** 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Oso egoera onean. Nahiko eraikuntza berria.

Berokuntza, trasteleku eta igogailuarekin.

**Areso.** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke partzela salgai.

**Belauntza.** Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.

**Gabiria.** Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.

**Hernalde.** Etxe bifamiliarr ederra salmantan. Eraikuntza nahiko berria.

**Ibarra.** Etxe adosatua salmantan.

Oso egoera onean.

**Ibarra.** Garaje ibi eta irekiak salgai.

**Ibarra.** San Inazio auzoa. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. 228.385 euro.

**Ibarra.** Euskalerria kalea.

Oso egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

Berokuntzarekin.

**Ibarra.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Dena kanpoaldera.

Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.

**Tolosa.** Erdialdean, eraikuntza berriko etxebizitza. 3 eta 4 logela.

Terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 168.285 eurotik.

**Tolosa.** Trinkete. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Trasteleku eta garaje itxia.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

**Tolosa.** Araba Etorbidea. Garajea alokairuan.

**Tolosa.** Belate, 3 logela, sukalde-egongela, bainugela. 264.450 euro.

**Tolosa.** Zumalakarregi.

165 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salmantan. Trastelekuarekin.

**Tolosa.** Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92 eta 97 m<sup>2</sup>. 2 eta 3 logela,

sukalde-egongela, 2 bainugela. Oso bista ederrak. Guztiz berrituak.

Estreinatzeke.

**Tolosa.** Araba Etorbidea, 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela.

25 m<sup>2</sup>-ko trasteleku eta garajea.

**Tolosa.** San Frantzisko Ibilbidean 120m<sup>2</sup>-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 40m<sup>2</sup>-ko bulegoa alokairuan.

**Tolosa.** Usabal. 2.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioa industrialak alokairuan.

**Tolosa.** Guadalupe. Pabilioa, 228 m<sup>2</sup> beheko aldean eta 148 m<sup>2</sup> goikaldean. Prezio interesgarria!

**Tolosa.** Alliri, eraikuntza berria.

Diseinuzko etxebizitza terrazarekin.

**Tolosa.** Santa Klara, berrituriko etxebizitza, 2 logelekin.

**Tolosa.** San Esteban. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela.

Berokuntzarekin. Trasteleku.

**Bizitzera sartzeko moduan.**

**Zizurkil.** Etxe atxikia salmantan oso egoera onean.

**Zizurkil.** Etxe bifamiliarr ederra salgai. 4 solairu.

**Villabona.** 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Balkoi ederra. Dena kanpoaldera. Erabateko obra behar du. Eraikuntza guztiz berritua dago eta igogailua du.

## LEITZA ▶ KULTURA



**Eho-ziri lanak.** Goizean zehar, arreta handiz, eho-ziri lanzale bakoitza bere mundiloan, zeinek baino zeinek parpaila dotoreagoak eta konplexuagoak egiten aritu ziren, eho-ziriak hara eta hona mugituz, hariak elkarrekin bihurrituz. MADDI SOROA



**III. Topaketa.** Karrapea bete zuten 15 herritatik etorritako 164 eho-ziri lanzaleek. M. SOROA



**Erakusketa.** Elkarteko kideek urtean zehar egindako lan bereziak erakusgai jarri zituzten: bordatu norbegiarra, patchwork-a... M. S.



**Erakutsi-ikasi.** Batzuk besteie erakusteko ere baliatzen dituzte topaketak. Irudian, Bakaikuko amona-bilobak: amona bilobari erakusten ari zaio. M. S.

# Eho-zirien dantzan, topaketa «jendetsua»

Herenegun Karrapea 15 herritako eho-ziri lanzaleen topagune bilakatu zen; guztira, 164 lagun aritu ziren lanean

## JAIONE ASTIBIA

«Oso gustura» zeuden atzo, Eho-ziri lanzaleen III. Topaketako antolatzaile diren Liño Putzu elkarteko kideak: «Oso egun polita atera zen igandea; jende asko ibili zen ikusten,

kanpokoa ere bai, eta topaketan parte hartu zuten guztiak ere gustura joan ziren». Halaxe baieztatu zioten atzo HITZARI. Aitatzekoa da, gainera, Liño Putzuko kideak, egun horretarako bereziki prestatutako euskal jantziak soinean zituztela

agertu zirela, dotore asko, berriak bainikaz apaindutako zapiak eta mantalurrekoekin.

Goizean hasi baziren ere eho-ziriei eragiten, batez ere Euskal Herrian bertatik etorritako 164 eho-ziri lanzaleen trebetasuna ikustera eguerdi aldera bertaratu ziren ikusleak. Karrapea betez iladatan jarrita zeuden 15 herritatik etorritako

## ZOKKETA ▶

1. saria. 0514 zenbakia.
2. saria. 0575 zenbakia.
3. saria. 0960 zenbakia.
4. saria. 0522 zenbakia.
5. saria. 0395 zenbakia.
6. saria. 1517 zenbakia.

lagunak, eta ikusleek adi-adi erreparatzen zieten eho-zirien hara-honerako mugimendu trebeekin zehatz bihurrituz, nola osatze zihozzen maiz, eskuihal, abaniku edozein erabilpenetarako parpailak; meharrago edo zabalago, sareago edo landuago, kolore bazarrez edo nahasian... bakoitzak bere mundiloan harien bihurriari eusteko orratzak sartuz. Mundiloetan ere bazen aukerarik, burko modukoetatik

hasi eta egurrezko egituradun altzari osoak zituzten eho-ziri lanzaleak ere baziren eta.

Aitatu, eho-ziri lanzale gehienak emakumezkoak baziren ere, bi gizaseme ere etorri zirela; eta baita 4 ume ere, Bakaikuko amona eta biloba, esate baterako.

Guztien artean, batak beste-ari erakutsi eta ikasteko baliatzen dituzte igandean egin zuten topaketen gisakoak; diseinu berriak, teknika berriak... Topaketarako saldutako bolotoen zenbaki saridunak ere jakitera eman zituzten.

Eta goizean zehar topaketa batetik bestera ere ezagun dituzten kideekin, bazkaria egin zuten herriko jatetxe batean, 120 bat lagunek; Eguzkiñe trikitilariak jotako doinuak abestuz. «bazkalondo alai eta eder-rra» izan zuten.

## iragarki laburrak ▶

### LANPOSTUAK

**Haur eskolak.** Haurren zaintzaile eta hezitzaile postuak bete behar dituzte. 943 31 37 82.

**Garbitzaileak.** Hurrengo deialdiak udaletarako eta ikastetxeetarako. Informazioa doan: 943 31 37 82.

**Administrari laguntzaileak.** Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Udalek administrari laguntzaile postuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Bezeroen arreta.** Aireportuetarako plazak libre. 943 31 37 82.

**Gidariak.** Eusko Jaurlaritzarako eta udaletarako behar dira. 943 31 37 82.

**Udalak.** Lorezainak, elektrizistak, iturginak, administrari laguntzaileak, atezainak.

Udaletarako postu horiek bete behar dituzte. 943 31 37 82. **Sukaldariak.** Sukaldariak eta sukaldeko laguntzaileak behar dira egoitza, eriebe eta ikastetxeetarako. 943 31 37 82.

**Lanpostuak.** Igeltsero, elektrizista, iturgin, pintore lanpostuak. Udaletarako plazak libre. 943 31 37 82.

**Gipuzkoako Foru Aldundia.** Sukaldari laguntzaileak, obra zaindaria, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak, garbitzaileak behar ditu. 943 31 37 82.

## iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.:616 93 17 88



**Ibarra.** Aukera! Egongela, sukalde, 3 logela eta bainugela dituen etxebizitza ederra. Akatsik gabea. 41.700.000 pezeta. Etxesagasti 943 69 68 56.

**Andoain.** Altua, igogailuarekin. Egongela, sukalde, 2 logela eta bainugela. Erabat eraberritua. Trastelekua. Inguru oso onean. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Andoain.** Egongela, sukalde, 3 logela eta bainugela. Sartzeko moduan. Berogailua. Kanpora. Etxesagasti, 943 69 68 56.

**Tolosa.** Egongela, sukalde, 3 logela eta bainugela. Egoera ona. Oso eguzkitsua. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti, 943 69 68 56.

**Villabona.** Duplexa, egoera onean. Egongela, sukalde, 2 logela eta bainugela. Kanpora. 35.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Amezketak.** Eraiki berria den atxikitako etxea. Informa zaitze! Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Zizurkil.** Eraikuntza berriko etxe ederra. Informa zaitze! Etxesagasti. 943 69 68 56.

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko ekainaren 6a, asteartea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

20

hotzena

16

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egileko...)

943 30 43 46

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jauriaritza, Kultura Saila

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Albiztur.** Bihar, Albizturko Kultur Astearen baitan, Joseba Ramirez ipuin kontalariak emanaldia eskainiko du liburutegian, 16:30etik aurrera, 3 eta 6 urte bitartekoentzat.

Jarraian, 6 eta 12 urte bitartekoentzat izango da. **Ibarra.** Gaur, 19:30ean, Kultur Etxean, Elkartasun Egunaren inguruan hitz egingo dute.

**Ibarra.** Gorrira irteera antolatuta du Haizetan Raju mendi taldeak hilaren 11n. *Sua* filmarako grabaketa ere egingo dute arratsaldean. Izen-ematea, Ibarra Atari eta Zubiaurre tabernatan, Tolosako Denak-en eta 652 71 58 00 telefono zenbakian.

**Ikaztegieta.** Bihar, 21:00etik aurrera, liburutegian festetako hirugarren bilera egingo dute.

**Tolosa.** Gaur, Adinekoen Astearen barruan, lurreamendi egoitzan ekitaldiak izango dira: 10:00etan meza izango da, 11:00etan iazko memoriaren aurkezpena, 13:00etan zuzendaritzako batzordekideekin bazkaria, eta 17:00etan Donostiako Alaitu abesbatzaren emanaldia, kafetegian.

**HITZALDIAK**

**Gaztelu.** Uli Mankomunitateak antolatuta, *Telegantza*



**Intxurre Futbol Taldeko sari berezien banaketa**

**ALEGIA** ▶ Intxurre taldeak denboraldi amaierako afaria egin zuen Alegian, non sari berezien banaketa burutu zuten. Hauek izan dira, aurtengoan, jokalaririk erregularrenaren saria jaso dutenak: lurraldekakoan, Kepa Arozena; jubeniletan, Mikel Odriozola; kadeteetan, Adur Iburguren; infantil mailako mutiletan, Urko Arandia, eta nesketan, Soraya Benegas. Bestalde, Patxi Renobalesek opari berezia jaso zuen, jubenil taldeen partetik.

Izan ere, Intxurre taldearen alde egiten ari den lana eskertu nahi izan dute. Banatutako opariak Garaialde Iturgintza enpresari esker banatu zituzten, eta erloju bikainak eskuratu zituzten sarituek. Argazkian, ezker-eskuin, zutik: Ioxan Otaño, Eneko Garmendia, Santos Irazustabarrena eta Xabat Renobales. Makurtuta, Mikel Odriozola, Adur Iburguren, Kepa Arozena, Urko Arandia eta Soraya Benegas. HITZA

hitzaldia izango da bihar 17:00etatik aurrera. Gazteluko Herriko Elkartearen, 17:00etan.

**Tolosa.** Gaur, Udaletxeko batzar aretoan, Italiako Val di Susa haraneko bi kidek AHTren kontra egiten ari diren protestei buruzko hitzaldia izango da, 19:30etik aurrera.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Maite Itsaso Zabaleta tolosarraren margolanak daude Jubilatuen tabernan, hilaren 21a arte. Egutero irekita, astelehentean ezik.

**Tolosa.** *Aterpeak.* Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketa izango da Aranburu jauregian.

**Zizurkil.** Abulondo kultur etxean klima aldaketari buruzko erakusketa izango da, hilaren 11 bitarte.

**Zizurkil.** Ostirala arte, Pedro Mari Otaño eskolan *Tokiko Agenda 21ean murgilduz* erakusketa izango da.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, M.L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa.*  
 18:00-19:00. *Adi Guri.*  
 21:00-22:00. *Zaharrak berri.*  
 22:00-23:00. *Street noise.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

**hitza** Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**MIKELAN** Elbarri eta 3. adin-erako bilatzen zenuen guztia!

- Gurrpil-aulki elektrikoak
- Gurrpil-aulki manualak
- Garabi elektrikoak
- Eskailera igotzeko aparatua
- Ohe artikulatua elektrikoak
- Bainurako laguntza teknikoak
- 3. adinerako materiala
- OSAKIDETZA-rekin hitzarmena
- Mantenimendu TAILERRA
- ALOKAIRU zerbitzua

Laskibar Industrialdea 19 Pab. 3-01 20270 IRURUA  
 Tel.: 943 69 22 65 • Faxa: 943 69 43 89  
 posta elektronikoa: mikelan@mikelan.com  
 www.mikelan.com

**GIPUZKOAN gehien irakurritako egunkarietan BIGARRENA\***

HITZA euskarazko komunikazio esparrua egiteko beharrezko tresna

Euskarazko prentsak gero eta irakurle gehiago ditu *Mila esker*

\*CIES-en 1. neurketa 2006. Azterketak Gipuzkoan 69.000 irakurle eman dizkigu; Herrialdeko 23 herritan egin da, horietatik 13tan dago HITZA.